

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2018ko EKAINAREN 7an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2018ko ekainaren 7an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Gotzon Jauregi Sarasola
Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre
Ander Leon Nanclares
Angel Serrano Martinez
Aritz Sarria Saraqueta


Bilkura honetara ez da bertaratzen: Felix Joaquin Asensio Robles

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten den Udalbatzarretako akta onestu, hala bada/gokio/ Aprobación, si procede de la siguiente acta Plenaria:**
 - **2018ko maiatzaren 3an egindako ohiko bilkura./ Sesión ordinaria de fecha 3 de mayo de 2018.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Bake epailea eta bere ordezkoreen hautaketaren onespina, hala bada/ Selección de Juez de paz y su sustituto..**
- 4. 2018 urterako udal tasen hobari eskaeraren azterketa, hala bada./Estudio de las solicitudes de bonificación en las tasas para el ejercicio 2017.**
- 5. Hobeki, hondakinen kudeaketa hobetzeko Euskal Herriko Toki erakundeen elkartearen kide egitea, hala bada/Afiliación a Hobeki, Asociación de entidades locales de Euskal Herria para la mejora en gestión de residuos.**
- 6. Larraulgo Urbeltz 30 etxeke lursailaren kota eta itxitura aldatzeko obra baimena eskaera, A.M./ Solicitud de licencia de obras para adecuación de cotas y cierre de la parcela de vivienda Urbeltz 30 de Larraul.**
- 7. 2017 urteko kontu orokorraren onespina /Aprobación de la Cuenta General del Presupuesto 2017.**
- 8. Tolomendiri 2018 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada./ Aportación económica a Tolomendi correspondiente al ejercicio 2018.**
- 9. Ortzadar elkarreak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa/ Estudio de la solicitud de ayuda económica realizada por Ortzadar elkarreak.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

10. Erroitz Baltzu Mugatuak, 2018 urterako eginiko diru-laguntza eskaera, hala bada./ Solicitud de ayuda económica para el ejercicio 2018, realizada por Erroitz Baltzu Mugatuak.
 11. 1/2018 Kreditu aldaketaren hasierako onespena, hala bada/Aprobación inicial del expediente de modificación de créditos 1/2018.
 12. 2018ko apirilaren 24ko agindua, zeinaren bidez arautzen baitira, 2018ko ekitaldirako, 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapeneko Programaren esparruan onartu zen Leader eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzaren babesean, diru-laguntza eskaera egitea/ Solicitud de ayuda económica al amparo de la ORDEN de 24 de abril, las ayudas destinadas a la promoción, al desarrollo y a la diversificación económica de los municipios rurales incluidos en la zona Leader aprobada en el marco del Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2015-2020.
 13. Tolosaldeko Atariari 2018 urteari dagokion diru-laguntza burutzea, hala bada./ Ayuda económica a Tolosaldeko Atariari correspondiente al ejercicio 2018.
 14. Oporrak Bakean programaren onespena, hala bada/Aprobación del programa, Oporrak Bakean.
 15. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
 16. Beste batzuk/Otros.
 17. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.
- 17.1.Larraulgo Gure Esku Dago-k aurkezturiko adierazpenaren azterketa, hala bada/Estudio de la moción presentada por Larraulgo Gure Esku Dago.

.../...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.


- ▣ 2018 urteko maiatzaren 3an Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARREN PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

12//2018 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 8koa, non onesten den 2018-KALD-000001 Kreditu aldaketari hasiera ematea, ebazten duena.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

13/2018 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 8koa, non 2018-KALD-000001 Kreditu aldaketa onestea, ebazten den.

14/2018 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 10ekoa, non 2018ko 1. Hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten den.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

HIRUGARREN PUNTUA

BAKE EPAILEA ETA BERE ORDEZKOAREN HAUTAKETAREN ONESPENA, HALA BADA

Puntu honetan Gotzon Jauregi zinegotzia Udalbatzatik irteten da

Ikusirik 2018 urteko maiatzaren 3an Udalbatzarrak, ospatutako ohiko bilkuran, hartutako akordioz datozen lau urteetarako Larraulgo Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdi publikoa egitea erabaki zuela.

Ikusirik Larraulgo Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatzeko deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela 2018 urteko maiatzaren 11an eta deialdiari buruzko bandoa banatu zitzaizela Larraulgo herritarrei, hamabost lanegunetako epea zabaldu zelarik, 2018 urteko maiatzaren 14tik ekainaren 1era bitartean, biak barne, interesa zutenak Larraulgo Udaletxean izena eman zezaten.

Ikusirik epearen barnean ondorengo hiru pertsonak eskaera aurkeztu dutela:

- J. A. L.
- E.T.A.
- S.B.

Ikusirik hiru hautagaiek kargua hartzeko baldintza guztiak betetzen dituztela eta ez dutela Botere Judizialeko Lege Organikoak 102,302, 303 eta 309 artikuluetan, eta Bake Epailei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Erreklamenduan xedatutako ezgaitasun zein bateraezintasun kausarik.

Ikusirik hiru hautagai daudela baldintza guztiak betetzen dituztenak, Udalbatzak, zozketa egitea erabakitzen duela, ondorengoa delarik emaitza:


-Titularra: S.B.

-1. Ordezkoa: E.T.A..

-2. Ordezkoa: J. A. L.

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA.- Datozen lau urteetarako Larraulgo Bake Epaile moduan izendatua izan dadin S.B. andrea proposatzea.

BIGARRENA.- Datozen lau urteetarako Larraulgo Bake Epailearen ordezeko moduan izendatua izan dadin E.T.A. andrea proposatzea.

HIRUGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri eman eta aldi berean akordioa argitaratu Udaletxeko Iragarki Taulan.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri Euskal Autonomi Erkidegoko Auzitegi Nagusiari ematea.

LAUGARREN PUNTUA

2018 URTERAKO UDAL TASEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2018 urterako ura eta zabor tasen hobari eskaerak egiteko epea zabaldu zela otsailaren 1etik 28arte (biak barne).

Ikusirik, aipaturiko epean eskaera bakarra aurkeztu zela.

Ikusirik Gizarte langileak eginiko txostenetan dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.-C.G. andreari ur eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.


BIGARRENA.- Erabaki honen berri interesdunei jakinaraztea.

BOSTGARREN PUNTUA

HOBEGI, HONDAKINEN KUDEAKETA HOBETZEKO EUSKAL HERRIKO TOKI ERAKUNDEEN ELKARTEAREN KIDE EGITEA, HALA BADA

Hondakinen erabilera gure bizimoduaren isla da. Kontsumo-ohiturak, pertsonok gizarte-antolaketan dugun tokia, naturarekin dugun harremana, garapena ulertzeko modua... horiek denak agerian geratzen dira hondakinen kudeaketari erreparatuz gero. Eta, herritarron bizimoldeak ez ezik, erakunde publikoen jokabideak ere nabarmen azaltzen dira.

Azken urteotan bilakaera esanguratsua gertatu da Euskal Herrian. Gaiaren garrantziaz jabetu, eta gaur egun inork gutxik jartzen du zalantzan modu egokian



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

kudeatu behar direla hondakinak. Herritarrok nahiz herri-erakundeok arduraz eta erantzukizunez jokatzera behartuta gaude.

Gauzak horrela, toki-erakunde askok urteak daramatzagu esperientzia desberdinak jorratzen. Lan honetan, ordea, elkarren arteko komunikazioa eta esperientzia- nahiz iritzi-trukaketa ez da behar bestekoa. Hutsune hori betetzeko asmoz, elkarte baten eraketa proposatu da, bere bitartez toki-erakundeek egiten dutena beste toki-erakundeen ezagupenera iritsi dadin, eta ondorio zuzeneko ekimenak guztien artean partekatua izan daitezten. Elkarlana eta koordinazioa helburu dituen elkarte izango da, betiere kontuan hartuta hondakinen kudeaketa eta horren inguruko egikaritzapenak udalen esku daudela.

Elkartearen Estatutuek Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legea eta Elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko Estatuaren Lege Organikoa betetzen dute.

Ondorioz, Udalbatzak honek, aho batez, honako

Akordioak hartzen ditu:

LEHENA.- HOBEBI, Hondakinen Kudeaketa Hobetzeko Euskal Herriko Toki-Erakundeen elkarteko kide egiteko erabakia hartzea, Elkartearen Estatutuen onarpenarekin batera.

BIGARRENA.- Udalaren ordezkarietarako Aritz Sarria Sarasqueta zinegotzia izendatzea.

HIRUGARRENA.- Elkartearen printzipioak eta konpromisoak onartzea, honekin batera jasotzen den eranskinean agertzen diren moduan.


SEIGARREN PUNTUA

LARRAULGO URBELTZ 30 ETXEKO LURSAILAREN KOTA ETA ITXITURA ALDATZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, A.M.

Ikusirik A.M. andreak eginiko eskaera, non Larraulgo Urbeltz 30 etxeoko lursailaren kota eta itxitura aldatzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, 2018ko maiatzaren 28an Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“LARRAULGO URBELTZ 30 ETXEKO LURSAILAREN KOTA ETA ITXITURA ALDATZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

A.M. andereak, Urbeltz 30 etxearen sarrerako terrazaren kota egokitzeko eta mailazko itxitura aldatzeko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua eta terrazaren gaur eguneko eta proposatutako planoak aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:**

Eskaeran, Urbeltz 30 etxearen sarrerako terrazan bi lan egin behar direla esaten da; alde batetik, gaur egungo malaizko itxitura 1,50m-ko altura duen berri bategatik aldatuko dela azaltzen da. Bestetik, pribatua den lursaileko kotak eskailera maila batez egokitu nahi direla esaten da, urarentzat inklinazioak eta hustubideak ere moldatzen direlarik. Etxearen lursailaren espazio librearen neurria eskasa izanik, lorategiko tratamendua jardineraz egingo dela esaten da. Lan hauen aurrekontuaren kopurua 3.227,40€ da.

Larraulgo Arau subsidiarioen 14º artikulua esaten duen bezala, eraikinaren kanpo itxuraren aldaketek udal lizentzia behar dute. Urbeltz 30 etxea Larraulgo lur hiritargarrarian kokaturik dago, bereziki A.I.U.2.1 ELIZEGI unidatean.

Larraulgo Arau subsidiarioen Lur hiritargarriko lursailen itxiturei buruzko 38º artikulua honela dio;

Artículo 38.- Cierres de parcela.

Los cierres de las parcelas privadas se realizarán con muretes de mampostería de piedra de altura no superior a un metro o por medio de elementos vegetales con altura no superior a 1,50 mts.

Los cierres provisionales a base de estacas de madera y alambre no tendrán una altura superior a 1,20 mts.

Los espacios ajardinados privados que surjan en las parcelas deberán recibir tratamiento de jardinería al menos en un 50% de su superficie.

Aurrekoa ikusirik eta lorategiko tratamendua egiten bada, udal baimena ematea egokia dela iruditzen zait.


*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauko segurtasun neurriak gorde beharko dira.

*Lanak amaitzean, eraipen-hondakinak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dira udaletxean.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, Angel Serrano zinegotziaren abstentzioarekin, gehiengoaz, ondorengoaz

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: A.M. andreak eginiko obra baimena eskaera onestu, hau da, Larraulgo Urbeltz 30 etxeko lursailaren kota eta itxitura aldatzeko obra baimena ematea, betiere,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Udal Aholkulari teknikoak eginiko txostenean jasotzen dituen baldintzak betetzen baditu.

BIGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

2017 URTEKO KONTU OROKORRAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2017 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzaizkien.

Ikusirik 2018ko maiatzaren 11an argitaratu dela iragarkia GAOn eta jendaurreko epea ireki dela 2018ko maiatzaren 12tik ekainaren 1era bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritik Larraulgo Udaleko 2017 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onespena ematea.


BIGARRENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

TOLOMENDIRI 2018 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Garapen elkarteak, TOLOMENDI-k, 2018ko maiatzaren 8an Tolosan ospatutako urteko Batzar Orokorrean, 2018. Urterako Elkartearen aurrekontua onartu zuela.

Ikusirik goian aipaturiko banaketa horren ondorioz, Larraulgo Udalarari 1.799,23 euro ordaintzea dagokiola, elkartearen funtzionamendurako.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENGOA.- Tolomendi Landa Garapen Elkarteari 1.799,23 eurotako ekarpena burutzea 2018 ekitaldiko funtzionamendu gastuei aurre egiteko, udal aurrekontuetako 422.410.00.01 partidaren kargura.

BIGARRENA.- 1.799,23 eurotako gastua onestea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

ORTZADAR ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Ortzadar Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera, hau da, “Bazterketa arriskuan dauden aniztasun funtzionala duten pertsonen aldeko laguntza programa” garatzen ari direla eta diru-laguntza eskaera egiten dute.

Ikusirik, Larraulgo Udaleko 2018 urteko aurrekontuan ez dagoela aurreikusita helburu honetarako partidarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Ortzadar Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera ukatzea, 2018ko udal aurrekontuetan ez dagoela helburu horretarako diru partidarik.

HAMARGARREN PUNTUA


ERROITZ BALTZU MUGATUAK, 2018 URTERAKO EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA ONESTU, HALA BADA

Ikusirik 2018 ekitaldirako Erroitz Baltzu mugatuak, aurkeztu duela “AIURRI, Beterri-Aiztondoko hamaboskaria”-k egitasmoaren aurrekontua, bertan, Larraulgo Udalari dagokion ekarpena agertzen da, hau da, 750,00 eurotako ordainketa egitea eskatzen da.

Ikusirik Larraulgo Udalak, 2018 urteko aurrekontuetan, Erroitz Baltzu mugatuari Aiburri Beterri-Aiztondoko hamaboskaria argitaratzeko 750 eurotako partida bat aurreikusi duela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DUTE



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA.- “AIURRI, Beterri-Aiztondoko hamaboskaria”-ari 2018 ekitaldirako 750,00 eurotako diru-laguntza onartzea eta ordainketa burutu dadila agintzea. Urte bukaeran, Erroitz Baltzu mugatuak, dagokion kitapena aurkeztu beharko duelarik.

BIGARRENA.- 750,00 eurotako gastua onestea, 2018 urterako udal aurrekontuetako 422.334.00.01 partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Erroitz baltzu mugatuari erabaki honen berri ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

2/2018 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONESPENA, HALA BADA

Larraulgo Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Eztabaidatu ondoren, Udalbatza honek, aho batez, honako hau


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:


Gastuen	Azalpena	Kredituak
---------	----------	-----------



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

partida		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.210.163.00.01 2018	AZPIE ETA OND.GAST.KALE ETA BIDE GARB.	0,00	350,00	350,00
1 0000.210.171.00.01 2018	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.PARKE ETA LOR.	250,00	70,00	320,00
1 0000.210.332.10.01 2018	AZPIEGIT.ETA OND.GAST.LIBURUTEGIA	100,00	350,00	450,00
1 0000.221.933.00.01 2018	ARGI HORNIDURA: HERRI OSTATUA	0,00	800,00	800,00
1 0000.221.933.00.03 2018	GAS HORNIDURA: OSTATUA	0,00	250,00	250,00
1 0000.222.933.00.01 2018	TELEFONO BIDEZK.KOMU: OSTATUA	0,00	200,00	200,00
1 0000.230.332.10.01 2018	PERTSONAL DIETA ETA KIL: LIBURUTEGIKO DI	0,00	50,00	50,00
1 0000.421.162.30.01 2018	TOLOS.MANKOMUNITATEA.HON D.TRATAM.	100,00	50,00	150,00
1 0000.422.334.00.03 2018	BESTE ENTITATEEI EKARP: HARITUZ BERTSO	500,00	160,00	660,00
1 0000.430.231.10.01 2018	ASTEASUKO UDALA. BETANI ETXEBIZITZA BABE	0,00	3.000,00	3.000,00
1 0000.601.153.20.02 2018	PLAZATIK AIZE ETA ZEKEN BAIL.BIDE EGOKIT	0,00	47.210,03	47.210,03
1 0000.622.332.10.01 2018	LIBURUTEGIAN HAINBAT LAN	4.000,00	1.200,00	5.200,00
1 0000.227.920.00.99 2018	BESTE ENPR.EMAND.ZERBIT: DATUEN BABESA	0,00	4.000,00	4.000,00
1 0000.417.231.00.01 2018	TOLOSAKO UDALA: OPORRAK BAKEAN	0,00	125,00	125,00
1 0000.130.332.10.02 2018	KULTUR DINAMIZATZAILEAREN INDEMNIZAZIOA	10.000,00	5.000,00	15.000,00



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

GUZTIRA	14.950,00	62.815,03	77.765,03
----------------	-----------	-----------	-----------

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
c	2 0000.720.153.20.01 2018	DIPUTAZIOA: BASERRI BIDEAK	33.047,02
a	2 0000.870.000.00.01 2018	GERAKINAK	29.768,01
FINANTZAKETA GUZTIRA			62.815,03

BIGARRENA: Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

HIRUGARRENA: 2018ko maitzaren 22an egindako Idazkari-Kontuhartzailearen komunikazioa onestea, non azaltzen den:

KONTUHARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOA


2018ko Aurrekontuaren 2. Kreditu Aldaketako espedientea kontuan hartuta, Udal honek ez du betetzen 2018ko aurrekontuen egonkortasuna eta gastu araua. Beraz, Udal hau behartuta legoke, beraz, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, kontuan izanda 2018rako ezarritako zor helburua betetzen dela eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2014ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari ezarritakoari jarraituz, kontuhartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta batzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

Eta argi eta garbi ikusten da Kreditu Aldaketako espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.

HAMABIGARREN PUNTUA

2018KO APIRILAREN 24KO AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ ARAUTZEN BAITIRA, 2018KO EKITALDIRAKO, 2015-2018 ALDIRAKO EAEKO LANDA GARAPENEN PROGRAMAREN ESPARRUAN ONARTU ZEN LEADER EREMUKO LANDA-INGURUKO UDALERRIEN EKONOMIA SUSTATU,



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

GARATU ETA DIBERTSIFIKATZEKO LAGUNTZAREN BABESEAN, DIRU-LAGUNTZA ESKAERA EGITEA

Ikusirik 2018ko apirilaren 24ko agindua, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena, non Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatu eta dibertsifikatzeko laguntzen deialdia egiten duen 2018 ekitaldirako.

Ikusirik Larraulgo Udalak asmoa duela aipaturiko diru-laguntza honen babesean, “Larraulgo Pilotalekuaren egokitzea” proiektua aurrera eramatea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- “Larraulgo pilotalekuaren egokitzeko proiektuan” egin behar diren lanak burutzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2018ko apirilaren 24ko aginduaren babesean, non, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena, non Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzen deialdia egiten den 2018 urterako.

BIGARRENA.- Eba Erkizia Brion Udal Arkitektoak prestatutako “Larraulgo pilotalekuaren egokitzea” izeneko aurre-proiektua aurrera eramateko onespena ematea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO ATARIARI 2018 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Atariak eginiko diru-laguntza eskaera.

Ikusirik, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko lankidetzaren hitzarmena 2018 urterako, Larraulgo Udalak goran aipaturiko diru-laguntza eman dezan.


Ikusirik, 2018 urteko udal aurrekontuetan 422.334.00.02 partidaren, Tolosaldeko Atariari 750 euroko diru-laguntza bat emateko diru kopurua aurreikusten dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Atariari 750,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Tolosaldeko Atariak aurkezturiko lankidetzaren hitzarmena onartzea 2018 ekitaldirako, Alkatea hitzarmena sinatzeko ahalmentzen delarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENA: 750 eurotako gastua onestea, 2018 urteko aurrekontu orokorreko 422.334.00.02 partidaren kargura.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko Atariari ematea.

HAMALAU GARREN PUNTUA

OPORRAK BAKEAN PROGARMAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, aurten ere Tolosako Udalak aurten ere Oporrak Bakean programa antolatu duela, programa honen babesean Saharako hainbat neska-mutil etorriko dira Tolosaldeako familietara uda-aldia igarotzea, bere osasuna eta garapena hobetzeko helburu nagusiarekin.

Ikusirik, Larraulgo Udalak ere parte hartu nahi duela programa horretan.

Ikusirik, programa hori gauzatzeko hitzarmen bat prestatu dela Tolosako Udalaren eta Larraulgo Udalaren artean sinatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udalak, Oporrak Bakean programan parte hartzeko onespena ematea.

BIGARRENA: Larraulgo Udalak, Oporrak Bakean programarako 125,00 euro aurreikustea, programak sortarazten dituen gastuekin laguntzeko. Aipaturiko gastua egiteko onespena ematea.

HIRUGARRENA: Larraulgo Udalak eta Tolosako Udalak Oporrak bakean programa aurrera eramateko prestatutako hitzarmena onestea. Aneli Urbieto, Larraulgo Alkatea ahalmentzen delarik aipaturiko hitzarmena sinatzeko.


LAUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosako Udalari ematea.

HAMABOST GARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:


EBA ERKIZIA	903,76
QUIMUNSA	93,85
ZIZURKIL	143,99



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ZU ETA BIOK	648,95
JON TEJERIA	150,00
AITZIBER CENZANO	176,08
CORREOS	3,02
TROFEOS TXAPELDUN	416,42
ELHUYAR	16,00
GARAJE EKIN	341,80
CASER	818,22
MANPEL	121,30
BERRI LANTEGIA	73,00
LOPETEGI	151,86
KIROLZER	49,35
BABESA SUZAI	197,29
TOLOMENDI	155,55
ARGIA	150,00
PROTEC	3.365,94
LANKU	357,50
KATILLU TXULO	176,04
TRANSPORTES URBIETA	338,80
SETALDE	90,44
SANIPLAST	56,48
ZU ETA BIOK	1.001,88
EBA ERKIZIA	1.548,62
SETALDE	48,40
AIZKIBEL	133,29
CONTENEDORES SARASOLA	203,50
FERRETERIA BARBE	88,51
SANDRA GAVARRO	281,00
SANDRA GAVARRO	312,00
IBERDROLA	156,89
IBERDROLA	10,36
IBERDROLA	76,11
IBERDROLA	161,39
IBERDROLA	150,39
IBERDROLA	29,96
IBERDROLA	25,20
IBERDROLA	4,71
IBERDROLA	28,92
MOVISTAR	16,34
MOVISTAR	27,97
MOVISTAR	47,92
MOVISTAR	17,59



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

MOVISTAR	38,74
MOVISTAR	45,23
MOVISTAR	131,73
MOVISTAR	18,19
MOVISTAR	133,32
MOVISTAR	81,91
MOVISTAR	60,40

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **13.876,11** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

HAMASEIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

HAMAZAZPIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

17.1.LARRAULGO GURE ESKU DAGO-k AURKEZTURIKO ADIERAZPENAREN AZTERKETA, HALA BADA


Ikusirik Larraulgo Gure Esku Dago-k aukezturiko adierazpena, non ondorengoa dioen:

“LARRAULGO UDAL ETA HERRIARI

Euskal herritarrok bidegurutze batean gaude: hegoaldetik datozen haize atzerakoiak ditugu alde batean, eta demokrazian oinarritutako ziklo berri bat bestean. Zein bide hobesten dugun argi adieraziko dugu ekainaren 10eko giza katean. Erronkari heltzeko prest gaude. Erabakira iritsi arte lan egiteko daukagun determinazioa erabatekoa da. Etorkizun hobe batean sinesten dugulako, ziklo berria zabaltzeko mugarria jartzera goaz. Mugarri hori urrunago edo hurbilago jarri, gure esku dago. Herritarron esku.

Egungo marko juridiko-politikoak ezartzen dituen oztupoak nahikoa ez eta egungo markoa are eta murriztagoa nahi dutenek gure erakundeak jo puntuan jarri dituzte, herritar denon oinarritzko eskubideak urratzeko inolako erreparorik gabe. Katalunian aplikatu du Espainiako estatuak aurrenekoz 155. Artikulua, baina Euskal Herrian ere aplikatu dezake. Ez dezagun ahaztu.

Orain arte gatazka politikoa zena, erronka demokratiko bihurtzea lortu behar dugu.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Argi dugu, epe luzerako elkarbizitza bermatzeko ezinbesteko baldintza dela erabakitzeo eskaubidea gauzatzea. Elkarrekin etorkizun demokratiko, justu eta duina eraikitzeo bidean, inoiz baino argiago dagokigu askatasunaren eta eskubide zibil eta politikoan defentsan elkarri eskua ematea. Hain justu, ekainaren 10eko giza kateak balio behar du adierazteko herri hau ez dagoela prest atzera egiteko bere asmo eta helburuetan, aurrera egiteko determinazioa duela. Halaber, etorkizuna elkarrekin eraikitzeo borondatea erakutsi behar du mobilizazioak, horrek ahalbidetuko duelako mugak eta oztopoak gainditzea eta urrutira iristea.

Euskal Herritarrok erabakitzeo eskubidea gauzatzeo ditugun milaka arraioiak biltzen dihardu Gure Esku Dagok; horixe baita, finean, Herritarron ituna. Erabakitzeo arraioen bilduma; herritarren behar, ilusio, asmo eta zergatiak jasoko dituen bilduma zabala. Eta zertarako arrazoi bilketa hori? Bada, arrazoi horiei guztiei demokratikoki bide emateko, eta horretarako behar diren tresnak eta adostasun esparruak elkarrekin eraikitzeo. “Herri bat gara, erabakitzeo eskubidea dugu eta herritarron garaia da” leloetatik abiatuz, erabakitzeo eskubidea edukiz beteko dugu. Etorkizunean elkarrekin eraiki behar dugun herriari eta gizarte ereduari buruz abiatu beharrko eztabaida zabalari ekarpena egin nahi dio egitasmoak.

Abiapuntu gisa, 2019 arrazoi biltzeo asmoa dugu, 2019. Urtea dugulako jomugan. Esparru anitzetan, gizarte mailan, erakundeetan, zein nazioartean egiten ari diren urrats guztiek bat eginda, datorren urtean erabakitzeo eskubidea gauzatzeo aukera berriak sortu daitezkeela sinesten dugu. Euskal Herritarrok nolako etorkizuna nahi dugun irudikatu eta eztabaidatzen hasteko unea da.


Ziur gaude erabakitzeo arrazoiak bilketak lagunduko digula ikustarazten nola gauden herri gisa, eta ohartarazten zien diren gure beharrak eta gure mugak. Herri gisako erronkak eta lehentasunak zehaztu eta erabakitzeo eskubidea gauzatzeo modua adosteko unea iritsiko da orduan. Denon artean heldu beharreko erronka, eragile politiko eta sozialak eta herritarrok elkarrekin osatu beharrekoa. Horixe da GEDek aipatzen duen Herri ituna. Eztabaida, ekarpen, proposamen eta adostasunaren bidez eraikiko dugun tresna dinamikoa izango da.

Erabakitzeo eskubidea badugu eta arrazoiak ere soberan ditugu. Gauzatzeo ibilbidea elkarrekin adostea dagokigu orian. Eta hori guzian ardura da. Herri bezala jarduteko garaia da. Elkarrekin. Ezin baitugu aukera historiko hau galdu. Ezin gara geldirik geratu. Gure garaia da. Herritarrona. Determinazio osoz goaz aurrera, herritar burujabeok eraikiko dugun herri burujabera. Jende zoriontsua izan nahi dugulako, herri libre batean. Ekainaren 10ean eman diezaiogun eskua etorkiZUnari!

Erabakitzeo eskubidea dugu! Erabakitzeo milaka arrazoi ditugu! Adostu dezagun bidea elkarrekin.

Guzti honengatik, Larraulgo Udalari eskatzen diogu, bat egin dezala GURE ESKU DAGOK antolatzen dituen ekimenetan eta luza diezaiola herri guztiari EKAINAK 10ean egingo den GIZA KATEAN parte hartzeo deialdia bertaratzeko izena emanaz.”

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Larraulgo Gure Esku Dagok aurkezturiko adierazpena bere osotasunean onesten du.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beste gairik ez dagoenez, gaueko 21.20 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA